

itzulpena: Xabier Montoia

Paula Cala





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Paul Celan

itzulpena: XABIER MONTOIA

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Paul Celan

© itzulpenarena: Xabier Montoia

© edizio honena: Susa

2016ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

XX. mendeko bigarren erdiko poeta europar garrantzitsuena da Paul Celan zenbait kritikariren ustez. Ez da nolanhiko ospea, baina nahiko onartua da, adibidez Holokaustoaren poeta eza-gunena dugula. Primo Levi edo Imre Kertesz narratiban bezala, Celan poesian izan da horroaren idazle.

Errumaniako Erreinuko Txernovtsy hirian —egun Ukraina— jaio zen 1920. urtean. Familia judu batean sortua, amak batez ere kultura germaniarrera bultzatu zuen eta goi-alemana irakatsi zion txikitatik. Aitak, berriz, tradizio judutarrean hezi nahi izan zuen gehiago, eta halaxe ikasi zuen baita hebreeraz ere, eskola judu batean. Heziketa horren arrastoa nabari zaio poemetan, han-hemen erabili zituen hebreerazko hitzetan esate batera. Kaletarragoak ziren yiddisha, errumaniera eta ukrainera ere gaztetan ikasi zituen, eta beste zenbait hizkuntza (ingelesa, frantsesa) geroago. Erdialdeko Europako muga lausoetako biztanle poliglota horietako bat izan genuen Celan, eta poesia-aren itzulpenean ere erruz eta taxuz aritu zen

ez alferrik: Emily Dickinson, Guillaume Apollinaire, Paul Valery, Stephane Mallarme, William Shakespeare... Bere sortze hizkuntza, ordea, bakarria izan zen beti, alemana, amak hizkuntza kultu behinentzat eman ziona.

Bigarren Mundu Gerra piztu eta 1941ean naziak Errumanian sartzearekin, lehenengo ghetto batean atxiki zuten, eta geroago kontzentrazio esparru batera eraman. Urtebete eta zenbait hilabete han igaro ostean, Armada Gorriak esparrua liberatu zuen 1944ko hastapenetan eta Celen libre geratu zen. Luze gabe Vienara joan zen bizitzera eta han ezagutu zuen beste poeta handi bat, Ingeborg Bachmann, bilduma honetan ere kide duena. Haren bidez eta Group 47 taldeari esker bere lana aitortza jasotzen hasi zen, bereziki *Todesfuge (Heriofuga)* poemak. Europako garaiko poema ezagunenetakoa bilakatu da denborarekin, eta euskarara Koldo Izagirrek itzuli zuen estreinakoz 2000. urtean. Bilduma honetakoa, beraz, bigarren bertsioa duzu. Kontzentrazio esparruetako horrorea islatu zuen poeman, zenbait irudi errepikatu (esne beltza, sugeak) erabiliz eta fuga bat imitatzen duen errit-

mo poetiko bereziarekin. Bere poema ezagunena izanagatik, ez da ziur aski bere ekoizpeneko poema tipikoena. Celanek idatzitako poema gehienek aldean luzeagoa da, eta erritmo alde-tik jarraituagoa.

Celanen poesia iluntzat jo izan da maiz, bidez zentzutan jo ere: alde batetik, ez da berehalakotan ulertzen den horietakoa, aski hermetiko eta zurruna baizik; bestetik, idazkion hondoa dagoen mundu eta hausnarketak hitsak dira. Egia-tan, bi alderdiak elkarloturik ulertu behar dira. Munduaren makurrak egiten du berau adierazteko forma ezin izatea agerikoa: "*Mundu honen/irakurtezintasuna*". Halaxe agertzen dira etengabe bere poesian bortizkeriazko irudiak bezala esanahiaren hutsaltasunari eta ezerezari buruzko aipamenak. Aipamen horietako batzuk, haatik, ez dira beti lauso eta hermetikoak. Egin kontu, esaterako, 36ko gerrari buruzkoak (*No pasarán*) —zeinetan Celan Errepublikaren alde lerratu zen irmoki—, edo Vietnamgo gerrari buruzkoak (*Asian dagoen anaia batentzat*).

Celanen poesia sakonki aztertua da, eta irakurtzen da gaur eguneko oraindik, eta hark

izandako eragina beste idazle edo sortzaile batzuegan ere ez da makala: Edgard Jene-rekin elkarlan estua eduki zuen, Anselm Kiefer margolariak Celanen obran oinarriturik sortu ditu hainbat pieza, Hans-Jorg Gadamerrek haren poesia aztertu zuen...

Celanen idazkien sakonean dagoen atseka-bea are ageriagoa izan zen berrogeita bederatziru urte zituela suizidatu zenean, bere burua Senara botaz. Askorentzat horixe izan zen Celanen azkeneko ekintza poetiko tragikoa.

BEÑAT SARASOLA

[gauean beltzarana
duzu gorputza]

Gauean beltzarana duzu gorputza Jainkoaren
sukarraz:

zure masailetan zuziak astintzen ditu nire
ahoak.

Ez dadila sehaskan kulunkatua izan sehaska-
kentak adituko ez dituenak.

Eskua elurrez beterik joan nintzen zuregana,

eta zalantzakor, zure begiak urdintzen diren
gisan

orduen biran. (Ilargia biribilagoa zen orduan).

Miraria negarra da denda hutsetan,
ametsaren pegartxoak izoztu egin zen — zer
axola?

Oroitu: hosto beltz bat geratzen zen intsusan —
marka ederra odolaren kalizarako.

Iratzeen sekretua

Ezpaten ganberan itzalen bihotz hosto-berdeak
bere buruari begiratzen dio.

Ezpata-ahoak distiratsu daude: nork ez zuen
hiltzen segituko ispiluaren
parean?

Oinaze bizia pitxerretan banatuko da hemen
ere:

goian iluntzen da loretsu, inork edan aurretik,
ura ez balitz bezala,
maitasun ilunago bat eskatzen zaion bitxilore
bat balitz bezala hemen,
sofarako bururdi beltzago bat, ile astunagoa...

Baina hemen burdinaren distirak baino ez du
beldurrik eragiten

eta hemen dir-dir egiten du zer edo zerk
oraindik, espata bat izanagatik.

Mahaiko pitxerra husten dugu ispilua oparitzen
zaigulako.

Hauts dadila bi puskatan, hostaila bezala
berdeak garenongan.

[burdinazko oinetakoen karraska]

Burdinazko oinetakoen karraska gereziandoan.
Uda harrotzen zait kaskotik. Diamantezko
ezpoidun kuku beltzak
bere irudia marrazten du zeruetako ateetan.

Hostailatik buru-has ageri da zalduna.
Ezkutuan zure irribarre distiratsua darama
etsaiaren altzairuzko hil-atorran iltzatuta.
Ameslarien lorategia agindu zitzaion
eta lantzak prest ditu, arrosak igo ditzan...

Baina airez heltzen da oinutsik zurekin antzik
handiena duena:
bere esku leunak burdinazko oinetakoetan estu
bilduta,
lotan ematen ditu gudaldia eta uda. Harentzat
dario gereziari odola.

[zurzuri, zure hostoek
begirada zuriz]

Zurzuri, zure hostoek begirada zuriz
begirutzen diote ilunari.
Gure amaren ilea ez zen inoiz urdindu.

Txikoria belar, horren berdea da Ukraina.
Gure ama ilehoria ez zen etxeratu.

Euri laino, luzatzen al zara putzuaren gainean?
Gure ama gozoak negar dagi guztiengatik.

Izar biribil, urrezko begizta kiribiltzen duzu.
Berunak gure amaren bihotza zauritu zuen.

Harrizko ate, nork atera zaitu gontzetatik?
Gure ama amultsua ezin etorri.

Distantziari gorazarre

Zure begien iturrian
sasi-itsasoko arrantzaleen sareak bizi dira.
Zure begien iturrian
betetzen du itsasoak bere agindua.

Hemen jaurtitzen ditut
gizonen artean egondako bihotza,
nire jantziak, eta zin baten bristada:

Belztasunean beltzago, biluziago nago
Ernegatuta baino ez naiz leiala.
Zu naiz neu naizenean.

Zure begien iturrian
jitoan noa eta bahiketa batekin dut amets
egiten.

Sare batek beste sare bat harrapatu zuen:
lotuta bereizi ginen.

Zure begien iturrian
soka itotzen du urkatuak.

Frantziako oroitzapenak

Nirekin batera pentsatu: Parisko zerua,
udazkeneko
azafrai gaitz hori...

Bihotzak erosi genizkion neskato lore-
saltzaileari:

urdinak ziren eta uretan loratzen ziren.

Euria hasi zen gure gelan

eta gure auzoa etorri zen, Le Songe jauna,
gizon txiki iharra.

Kartetan aritu ginen, begi-niniak galdu nituen;
zure ilea utzi zenidan, galdu nuen, hark
makurrarazi gintuen.

Atetik joan zen, euriak jarraitu zion.

Hilda geunden eta arnasa har genezakeen.

Gerizpeko andrearen chanson-a

Dama isila etorri eta tulipanak lepo egiten
dituenean:

Nork irabazi?

Nork galdu?

Nor doa leihorantz?

Nork aipatzen du aurrena haren izena?

Nire ilea daraman bat da.

Hildakoak eskuetan eramaten diren moduan
darama.

Badarama zeruak nire ilea zeraman bezala
maitatu nuen urtean.

Hanpuruskeriagatik darama hala.

Horrek irabazten du.

Horrek ez du galtzen.

Hori ez doa

leihorantz.

Horrek ez du haren izena aipatzen.

Neure begiak dauzkan bat da.

Ateak itxi zirenetik dauzka.

Eraztunak hatzetan bezala daramatza.

Plazeraren eta zafiroen puskek bezala
daramatza:

udazkenean bazen jada nire anaia;

jada egunak eta gauak zenbakitzen ditu.

Horrek irabazten du.

Horrek ez du galtzen.

Ez doa leihorantz.

Azkena da haren izena aipatzen.

Nik esandakoa duen bat da.

Besapean darama pakete bat bezala.

Ordulariak bere ordurik okerrena daraman
bezala darama.

Atariz atari darama, ez du sekula botatzen.

Ez du irabazten.

Galdu egiten du.

Leihorantz doa.

Haren izena aipatzen duen aurrena da.

Tulipanekin batera eginen dute lepo.

Gau arraioa

Nire iluntzeko kutunaren ilea erre zen bizien:
hari bidali nion zurik arinenezko hilkutxa.

Uhinek inguratzen dute gure Erromako
ametsaren ohea bezala,
ileordeko zuri bat darama nik bezala eta erlats
mintzo da:

ni bezala mintzo da bihotzei pasatzen uzten
diedanean.

Maitasun kanta frantses bat daki, udazkenean
kantatu nuena,

Berantlurrean gelditu nintzenean turista eta
goizari eskutitzak idatzi
nizkionean.

Hilkutxa txalupa ederra da, sentimenduen
zuraz egina.

Horretan joan nintzen ni ere odol ibilian barna,
zure begia baino gazteagoa
nintzenean.

Gaztea zara orain martxoko elurretan hildako

txori bat bezala,

orain datorkizu eta bere frantses abestia
kantatzen du.

Argiak zarete, bukaeraraino lo eginen duzue
nire udaberrian.

Argiagoa naiz ni:

Ezezagunen parean kantatzen dut.

Zugandik niganainoko urteak

Berriz kizkurtzen zaizu ilea, negar egiten
dudanean. Zure begien urdinez
janzten duzu gure maitasunaren mahaia:
udaren eta udazkenaren arteko
ohe bat.

ez nik, ez zuk, ez eta hirugarren batek ere
prestatutakoa edaten dugu:
zerbait huts eta hondarrekoa.

Geure burua itsaso sakonaren ispiluetan
dakusagu eta bizkor pasatzen
dizkiogu janariak elkarri:
gaua gaua da, goizarekin hasten da,
zure ondoan uzten nau.

Heriofuga

Egunsentiko esne beltza arratsean edaten dugu
goizean eta eguerdian edaten gauean edaten
dugu

edan eta edan

hilobi bat zulatzen dugu haizean han
estutasunik ez

Gizon bat bizi da etxean sugeekin jolasten da
idatzi egiten du

Alemanian iluntzen duenean idazten du hire
urrezko ilea Margarete

idazten du eta atarira irteten da eta izarrak
dirdirka ari dira

bere zakurrei txistu egiten die

txistu egiten die bere juduei irteteko hilobi bat
zulatzen ipintzen ditu

jotzeko agintzen digu dantza egiteko

Egunsentiko esne beltza gauean edaten
zaitugu

goizean eta eguerdian edaten arratsean edaten
zaitugu

edan eta edan

Gizon bat bizi da etxean sugeekin jolasten da
idatzi egiten du
Alemanian iluntzen duenean idazten du hire
urrezko ilea Margarete
hire errautsezko ilea Sulamith hilobi bat
zulatzen dugu haizean han
estutasunik ez

Sakonago zulatu lurra oihu dagi eta zuek kanta
ezazue jo ezazue
bere gerriko burdina hartu eta astintzen du
begi urdinak dauzka
Sakonago zulatu lurra oihu dagigu eta zuek jo
ezazue dantzarako.

Egunsentiko esne beltza gauean edaten
zaitugu
goizean eta eguerdian edaten arratsean edaten
zaitugu
edan eta edan
Gizon bat bizi da etxean hire urrezko ilea
Margarete
hire errautsezko ilea Sulamith sugeekin
jolasten da
oihu dagigu jo ezazue gozoago heriotza

heriotza Alemaniako maisu bat
da

oihu dagigu jo ezazue ilunago biolina eta
orduan airean gora joanen zarete
kearen antzera
hodeietan hilobi bat izanen duzue orduan han
estutasunik ez

Egunsentiko esne beltza arratsean edaten
zaitugu

eguerdian edaten zaitugu heriotza
Alemaniako maisu bat da begi urdinak dauzka
berunezko balaz tiro egiten dizu ez du hutsik
egiten

gizon bat bizi da etxean hire urrezko ilea
Margarete

bere zakurrak xaxatzen dizkigu hilobi bat
oparitzen digu airean

sugeekin jolasten da eta amets dagi heriotza
Alemaniako maisu bat da

hire urrezko ilea Margarete
hire errautsezko ilea Sulamith

Laino-tutuan

Ahoa ezkutaturiko ispiluan,
belauna harrotasunaren zutabearen aurrean,
eskua burdinazko barra lodiarekin:

eskaini iluntasunari zuen burua,
esan neure izena,
eraman harengana.

[begiak]

Begiak:

dirdiratsu ari zuen euriaz,
Jainkoak edateko agindu zidanean.

Begiak:

gauak nire ahurrean kontatu zuen urrea,
asunak landatu
eta esaera zaharren itzalak jorratu nituenean.

Begiak:

atea bat-batean zabaldu nuelarik nire gainean
piztutako gaua
eta nire lokietako izotz negutarrak
zeharkatuta,
lauhazka joan nintzen eternitateko herrixketan
barrena.

Kristal

Ez bila nire ezpainetan zure ahoa,
ezta ate aurrean arrotza
edo begian malkoa ere.

Zazpi gau gorago gorrira doa gorria,
zazpi bihotz sakonago jotzen du eskuak atea,
zazpi arrosa geroago dagi iturriak marmar.

Paisaia

Makal tantaiak — lur honetako jendeak!
Zorionaren urmael beltzak — heriotzaraino
islatzen dituzu!

Ikusi zintudan, arreba, zutik dirdai horretan.

Eternitatea

Gau-zuhaitzaren azala, sortzez herdoildutako
labanek
izenak, denbora eta bihotzak xuxurlatzen
dizkizute.

Adi geundenean lo zegoen hitz bat
lerratzen da hostaila pean:
udazkena berritsua izanen da,
berritsuagoa biltzen duen eskua,
freskoa, ahanzturaren mitxoleta bezala, musu
egiten dion ahoa.

Isiltasuna

Isiltasuna! Zure bihotzean arantza sakatzen
dut,
ezen arrosa, arrosa
itzalekin dago ispiluan, eta odola dario!
Bazerion baiezkoa eta ezezkoa nahastu
genituenean,
edan genuenean,
mahaitik erori zen edalontziak dilin egin
zuelako:
gu baino luzeago ilundu zen gau batek jotzen
zuen.

Aho irrikatsuez edan genuen:
eztitsua zen
baina aparra zuen ardoak bezala —
Zuen begietako izpiari jarraitu nion
eta mihiak kontu gozoak zezeldu zizkigun...
(hori zezeldu, hori zezeldu beti.)

Isiltasuna! Sakonago sartu zitzaizun bihotzean
arantza:
arrosari loturik dago.

[zenbakitu arbendolak]

Zenbakitu arbendolak,
zenbakitu mikatza zena eta itzarri izan
zintuena,
kontu horretan neu ere sartu:

Zure begia bilatu nuen ireki zenuenean eta
inork ez zintuen ikusi
gogoan zenuen ihintzak pegarretaraino
lerratzeko baliatu zuen isilpeko haria irun nuen
inoren bihotzerako bidea aurkitu ez zuen
epai baten zaintzaile.

Han baino ez zinen zeure izenean guztiz sartu,
zure buruarengana egin zenuen ibilera
seguruaz,
zure isiltasunaren kanpaiaren egituraren dinbi-
danba aritu ziren mailuak,
aditutakoa heldu zitzaizun,
hildakoak ere bere besora bildu zintuen,
eta zuek hirurak arratsean barrena joan
zineten.

Egin nazazu mikatz,
har nazazu arbendoltzat.

Hilartitza Françoisentzat

Munduko ate biak
zabalik daude:
zuk zabalduta
argi-itzaletan.

Jo eta jo entzuten ditugu
eta badaezpadakoa eramaten,
eta berdea zure Betira eramaten.

1953ko urria

Ilunpez ilunpe

Begiak ireki zenituen — neure iluntasuna
bizirik ikusi nuen.

Hondoraino dakusat:
hor ere nirea da eta bizi da.

Beste aldera al darama? Eta eramatean
itzartu?

Noren argia da orpotik darraidana
txalupa-zain bat aurkitzeko?

Assisi

Umbriako gaua.

Umbriako gaua kanprietako eta olibondoko
hostoaren zilarraz.

Umbriako gaua zuk ekarritako harriaz.

Umbriako gaua harriaz.

Mutu, bizitzera
altxatu zena, mutu.

Bete pegarrak.

Buztinezko pegarra.

Buztinezko pegarra, horri atxikia hazi zen
ontzigilearen eskua.

Buztinezko pegarra, betiko itxi zuena itzal
baten eskuak.

Buztinezko pegarra, itzal baten zigiluaz.

Harria, edonora
begiratuta ere, harria.

Utzi astoari sartzen.

Animalia trostaria.

Animalia trostaria, eskurik biluzienak
sakabanatzen duen elurrean.

Animalia trostaria bat-batean itxi zen hitzaren
parean.

Animalia trostaria, loa eskutik jaten duena.

Distira, kontsolatuko
ez duen distira.

Hildakoak — oraindik
ari dira eskean , Frantzisko.

Gaur arratsaldean ere

Eguzkia

igerian duen itsaso honen gainean ere
erori zelako elurra,
are beteago loratzen da izotza
hirira daramatzazun otarreetan.

Hondarra

eskatzen duzu trukean,
etxeko azken arrosak
elikatua izan nahi duelako
gaur arratsean ere
tantaz tantako orduaz.

Kandela baten aurrean

Bozelduriko urreez, eskatu
zenidan bezala, ama,
egin nuen ordu
ezpalduen erdian
iluntzen nauen argimutila:
zure heriotzaren
alaba.

Liraina gorpuzkeraz,
arbendol begiko itzal mehea,
ahoa eta sexua
ametsezko piztia dantzarietz inguratuta,
hegan doa urre pitzatutik gora,
oraingoaren erpinera
igotzen da.

Gauetz jantzitako ezpainez
bedeinkapena
diot:

Elkarrekin borrokatzen diren
hiruren izenean, harik eta
sentipenen hilobian zerua hondoratzen
den arte,
amildegiko zuhaitzen ilea askatzen
dudan bakoitzean,
hondoetan barrena uhar aberatsagoak
joan daitezten —,
nire hatzean dir-dir egiten duten
eraztunen
hiru jabeen izenean,
hiruretako lehenaren izenean,
oihu egin zuenak
bizi behar izan zuenean, bera baino
lehenago bere hitza egon zen
tokian,
bigarrenaren izenean,
begiratu eta negar egin zuena,
hirugarrenaren izenean, erdian
harri zuriak pilatzen dituen, — libre
uzten zaitut
gure ahotsak isilarazten dituen
amenetik,
haren ertzetako argi izoztutik

non, dorre bat bezain gora, itsasoan
sartzen den,
non urdinak, usoak
izenak mokokatzen dituen,
hiltzearen alde honetan eta bestean:
zuk jarraitzen duzu, jarraitzen duzu,
jarraitzen duzu
hildako baten semea izaten,
nire irrikaren ezezkoari emana,
amaren hitzak eramane ninduen
denboraren pitzadura batekin
ezkondurik,
behin baino ez
dezan dardara egin
bihotza behin eta berriz estutzen didan
eskuak!

Giltza aldaberaz

Giltza aldaberaz

irekitzen duzu esan gabearen
elurra harat honat dabilen etxea.

Aukeratzen duzun giltza
zure begiari edo ahoari edo belarriari
darion odolaren arabera da.

Giltza aldatuz gero, aldatuko da
malutekin batera mugi daitekeen hitza ere.
Bultza egiten dizun haizearen arabera
pilatuko da elurra hitzaren gainean.

Gauez muzinduta

Hannah eta Herman Lenzentzat

Loreen ezpainak
muzinduta gauez,
pinuen enborrak
gurutzatuta eta bilduta,
goroldioa urdinduta, harria dardarka,
ipar beleak itzarririk
hormagunearen gaineko hegaldi etengabe
baterako:

Hona hemen harrapatu genituenek
atseden hartzen duten eskualdea:

Ez dute ordurik izendatuko,
ez dute malutarik zenbatuko,
ezta ura ezpondaraino jarraituko ere.

Bereziturik daude munduan,
bakoitza bere gauetik gertu,
bakoitza bere heriotzatik gertu,

kopetilun, buru-has, antzigartuta
hurbilarekin eta urrunarekin.

Beren jatorriari lotutako zorra kitatzen dute,
udak bezala arrazoirik gabe irauten duen
hitz batez kitatzen dute.

Hitz bat — badakizu:
gorpu bat.

Garbi dezagun,
orraz dezagun,
jar dezagun haren begia
zerurantz begira.

Denboraren begia

Hauxe denboraren begia:

okerra

zazpi koloretako bekainaren azpian.

Haren betazala suek garbitzen dute,

haren malkoa lurrina da.

Harengana egiten du izar itsuak hegan

eta betile beroenean urtzen da:

epeltzen ari da mundua

eta hildakoak

ernetzen eta loratzen dira.

In memoriam Paul Eluard

Utzi hitzak hildakoaren hilobian,
hark bizitzeko esandakoak.
Horien artean egokitu haren burua,
senti ditzala
irrikaren mihiak,
kurrikak.

Utzi hildakoari betazaletan
hi esan zionari
ukatu zion
hitza,
haren bihotzeko odolak saihestu zuena,
berea bezain biluzia zen esku batek
lotu zuen hi esan ziona
etorkizunaren zuhaitzetan.

Utzi haren betazaletan hitz hau:
beharbada
oraindik urdina den haren begiak
bigarren urdin bat hartuko du, arrotzagoa,
eta hi esan zionak
berarekin egingen du amets: Gu.

Schibboleth

Burdinazko barren atzean
negarrez hazitako
nire harriekin batera,

azoka erdiraino
bultzatu ninduten,
han
non zin egin ez nion bandera
zabaltzen den.

Txirula,
gauaren txirula bikoitza:
pentsatu gorritasun bizki ilunaz
Vienan eta Madrilen.

Jarri zure bandera haga erdian,
oroimena.
Haga erdian
gaurko eta betiko.

Bihotza:

eman ezagutzera hemen ere,
hemen, azoka erdian.
Egin oihu: Schibboleth-a
aberriaren arrotzean:
Otsaila. No pasarán.

Adarbakar:
harriez dakizu,
uraz dakizu,
etorri,
Extremadurako ahotsetaraino
gidatuko zaitut.

Zu ere mintza

Zu ere mintza,
izan azken hitza zure,
esan zurea.

Mintza —
baina ez bereiz baitik eza.
Eman zure esanari zentzua:
emaiozu itzala.

Emaiozu nahikoa itzal,
emaiozu gauerdiaren eta eguerdiaren
eta gauerdiaren artean
banatuta uste duzuna beste.

Begira inguruan:
begira nola pizten den zure inguruko oro —
Heriotzan! Bizirik!
Egia dio itzalaz mintzo denak.

Baina orain zauden tokia murriztu egiten da:
Orain nora joan, itzalik gabe, nora?

Igo. Haztatu gorantz.

Argalago bilakatzen zara, ezezagunago,
meheago!

Meheago: hari bat,
non izarrak nahi duen pausatu:
beherago igeri egiteko, beherago,
non bere burua dakusan distiratsu: hitz
ibiltarien itsaskirrian.

Irudi baten azpian

Bele elementia garizko laino baten gainean.

Zein zerutako urdin? Behekoarena?

Goikoarena?

Arimak jaurtikitako gezi berantiarra.

Burrumba ozenagoa. Distira hurbilagoa. Mundu
biak.

Eskutitzez eta ordulariaz

Argizaria
zigilatzeko
zure izena asmatu zuen
zure izena kodetzen duen
idatzi
gabea.

Ba al zatoz orain, argi igerilaria?

Hatzak, argizarizkoak ere,
eraztun arrotz
eta mingarrietan sartuak.
Hatz puntak urtuta.

Ba al zatoz, argi igerilaria?

Denboraz gabetua ordularien abaraska,
milaka erle emaztegai-soinekoz jantzita,
bidaiarako prest.

Zatoz, argi igerilaria.

Etxeratzea

Elurra erori, gero eta trinkoago,
uso koloreko, atzo bezala,
elurra erori, orain ere lotan bazeunde bezala.

Zuria, urruntasunean nabarmen.
Haren gainean, bukaezina,
galdutakoaren leraren lorratza.

Azpian, ezkutaturik,
sakatzen du
begiak mintzen dituenak,
muinoz muino,
ikusezin.

Bakoitzean,
bere gaurkoan etxekotuta,
mututasunerantz lerratzen naiz bat:
egurrezkoa, palto bat.

Han: sentipen bat,
izotz-haizeak eramana,

bere uso-, bere elur-
zapi koloreduna banderatzat hartu eta
paratzen duena.

Azpian

Ahantzuran etxekotuta
gure begi motelen
gonbidatu-solasa.

Silabaz silaba etxekotuta, dado
egun-itsuarekin banatuta,
horri buruz luzatzen da joko zalearen eskua,
handi,
itzartzuz.

Eta nire berriketaren gehiegikeria:
zure isiltasunaren eran jantzitako kristal
txikiaren inguruan pilaturik.

Tenebrae

Hurbil gaude, Jauna,
hurbil eta eskura.

Dagoeneko preso, Jauna,
elkarrengan iltzatuta
gutako bakoitzaren gorputza
zurea bailitzan, Jauna.

Egin otoitz, Jauna,
egin gure alde,
hurbil gaude.

Haizeak gaizki jota joan ginen hara,
okertzera joan ginen
hutsune eta labazko aintzirara.

Askara joan ginen, Jauna.

Odola zen, zuk
isuritakoa, Jauna.

Dir-dir zegien.

Zure irudia jartzen digu begietan, Jauna.

Gure begi-ahoak hain daude zabalik eta hutsik,
Jauna.

Edan egin dugu, Jauna.

Odola eta odolean zegoen irudia, Jauna.

Egin otoitz, Jauna.

Hurbil gaude.

Lore

Harria.

Jarraitzen diodan harria airean.

Zure begia, harria bezain itsua.

Eskuak

ginen.

Ilunpea husten genuen, hitza

aurkitu genuen, uda jasotzen zuena:

Lore.

Lore — itsu baten hitza.

Zure begia eta neurea:

uraz

arduratzen dira.

Hazkundera.

Bihotz pareta bihotz paretaren gainean

hostoak gehitzen dizkio.

Hori bezalako hitz bat oraindik eta mailuek

dantza eginen dute lur zabalean.

Gaua

Errekarriak eta legarra. Eta nota zorrotz bat,
mehea,
orduaren bihotz-altxagarri.

Begi trukea, mugatua, une txarrean:
irudi etenik gabea,
erretina
egur bilakatua —:
betikotasunaren ikur.

Bururagarria:
hor goian, munduaren egituran,
izarren antzeko,
bi ahoren gorria.

Entzungarria (goiza baino lehen?): harri bat,
besteak jomuga dituen.

Arimak oro

Zer egin
nuen?

Gaua ernaldu, honako hau baino gautarragoak
liratekeen beste batzuk
egoterik balego bezala.

Txoriaren hegaldia, harriaren hegaldia,
azaldutako
mila bide. Begiratuak,
lapurtuak eta lumatuak. Itsasoa,
dastatua, edana, amestua. Arima-eklipsaturiko
ordu bat. Hurrengoa, udazkeneko argi bat,
bidetik datorren sentipen
itsuari eskainia. Beste batzuk, anitz,
beren baitatik kanpo: ikusiak eta saihestuak.
Alderraiak, izarrak,
beltzak eta solasez beteak: isiltasunak
ezereztaturiko agindu batengatik izendatua.

Eta behin (noiz? hori ere ahaztua):
txarrantxa-punta sentitu nuen,

non neure pultsua kontra-taupadara ausartu
baitzen.

Hondakinen gabarra

Urezko ordua, hondakinen gabarrak
arratsera garamatza, hura bezala
ez gara presatuak, Zergatik bat
hilda datza popan.

.....

Argituta. Birika, marmoka
puztu egiten da kanpai bilakatzeraino,
arimaren luzapen
marroi bat heltzen da
arnastu bitartean distiratsu bilakatu Ezetzera.

Matière de Bretagne

Ote-argia, horia, malda
zerurantz zornatzen da, arantzak
zauria erakartzen du, horren barruan
jotzen du kanpaiak, arratsa da, Ezerezak
bere itsasoak daramazkio otoitzari pirritan,
odolezko zigilua zugana doa.

Idor, zure atzeko
ohea lohi, bere
ordua sasiz gainezka, goian,
izarretan, esnezko zidorrak solasean
 lokatzetan, datil azala,
azpian, pilatuta, aharrausika urdineraino,
 iragankortasunezko
sasi batek, ederra,
agurtzen du zure memoria.

(Ezagutu ote ninduzuen,
eskuok? Zuek erakutsitako
bide erdibituan barrena joan nintzen, nire
 ahoak

bere hartxintxarrak kanporatu zituen, joan
nintzen, nire garaiak,
elur horma ibiltaria, bere itzala hedatu du —
ezagutu ote ninduzun?)

Eskuak, arantzak
limurturiko zauria,
eskuak, Ezerezak bere itsasoari daragio,
eskuak, ote-argitan,
odolezko bela
zugana dator.

Zuk
irakasten duzu
zure eskuei irakasten diezu, irakasten duzu
zure eskuei irakasten diezu
lo egiten

Paisaia baten zirriborroa

Hilobi biribilak, azpian. Lau
konpasetako erritmoan urtearen urratsa
beren inguruko mailadi zorrotzetan.

Labak, basaltoak, munduaren
bihotzeko harri gorria.

Tupa-harrizko iturburua
non argia hazi zen guretzat, arnasa
baino lehen.

Olio-berdea, itsaso aparrez blai
ordu igaroezina. Erdigunerantz,
urdin,
harrizko zela bat, horren gainean,
jo eta kiskalita,
animaliaren bekokia
bere distira itsugarriaz.

[lurra zegoen haien baitan]

Lurra zegoen haien baitan, eta
zulatu egin zuten.

Zulatu eta zulatu, hala pasatu zitzaien
eguna albotik, gaua. Eta ez zuten Jainkorik
gurtu,
hau guztia nahi omen zuena,
hau guztia omen zekiena.

Zulatu zuten eta ez zuten beste ezer entzun;
ez ziren jakintsuago bilakatu, ez zuten kanturik
asmatu,
ez zuten hizkuntzarik asmatu.
Zulatu egin zuten.

Barealdia etorri zen, ekaitza ere etorri,
itsasoak oro etorri ziren.
Zulatzen dut, zulatzen duzu, eta harrak ere
zulatu,
eta kantak dio: zulatu egiten dute.

Oi bat, oi batere ez, oi inor ez, oi zu:
Nora zeraman bideak inora ez zeramanean?
Oi zulatzen duzu eta zulatzen dut, eta nik ere
neure burua zulatzen dut
zureganantz,
eta eraztuna gure hatzean itzartzen da.

[hainbeste argizagi]

Hainbeste argizagi, guri
eskainita. Zuri
begiratu nizunean —noiz?—
kanpoan nengoen
beste mundu batzuetan.

Oi bide hauek, galaktikoak,
Oi ordu hau, gauez
astuntzen duena
gure izenen zama. Ez da,
badakit, egia
gu bizi ginenik, itsu
zihoan arnasa besterik ez
han eta han-ez artean eta aldika
gure begiek burrunba egin zuten kometen
antzera
ahitutako gauzetarantz, amildegietan,
eta erre ziren tokian,
titiburuez bikain, denbora zegoen
eta haren gainean hazten zen eta murrizten
eta urruntzen

izan den edo zen edo izanen dena —,

badakit,

badakit eta badakizu, bagenekien,

ez genekien, jadanik han geunden eta ez
geunden han

eta aldika, hutsunea baizik ez genuenean gure
artean, aurkitu genuen

elkarrenganako bidea.

Zürich, Stork ostatuan

Nelly Sachs-entzat

Gehiegiaz mintzo ginen,
gutxiegiatz. Zutaz
eta zutaz berriro,
argitasunak eragindako lainotzeaz,
judutasunaz,
zure jainkoaz.

Hor-
taz.

Igokunde egun batean,
monasterioa han zegoen, uraren
gainetik etorri zen urrezko zer edo zerekin.

Zure jainkoaz mintzo ginen, haren aurka
mintzatu nintzen, espero
nuen bihotza utzi nuen:
bere
hitzik goren, hil sukartsuen, ezerosoenentzat—

Zure begiak begiratu zidan, bestera begiratu

zuen,

zure ahoak hitz egin zuen begirainoko bere
bidea, entzun nuen:

Guk

ez dakigu, badakizu,

guk ez dakigu

garrantzia

duena.

Uratea

Zure damu horren guztiaren
gainen: bigarren
zerurik ez.

.....

Mila hitz zituen aho baterako
bat baino ez zena
galdu —
galdu nuen
nigan iraun hitza:
arriba.

Hainbat
jainko gurtzeko
galdu nuen bilatzen ninduen hitz bat:
Kaddish.

Uratean
zehar joan behar nuen,
ur gezira hitza salbu

eramateko atzera
eta aurrera eta albora:
Jiskor.

Tübingen, urtarrilean

Solasak itsutu-
riko begiak.

Haien —“ garbiki
sortua da
igarkizuna”—, haien oroimena
Hölderlin dorreez,
kaioek
inguratuak.

Itotako zurginen
bisitaldiak
urpeko hitzei:

Baldin eta,
baldin eta lagun bat mundura etorriko balitz,
gaur,
aitalehenen bizar
distiratsuez: garai honetaz
hitz eginen balu,
zizaka eta zizaka baino
ezingo luke hitz egin

beti-, beti-,
behin eta berriz.

(“Pallaksch, Pallaksch.”)

Mandorla

Arbendolean — zer dago arbendolean?

Ezer ez.

Ezer ez dago arbendolean.

Hor dago eta dago.

Ezerezean — nor dago? Erregea.

Erregea hor dago, erregea.

Hor dago eta dago.

Juduaren kizkurra, ez zara urdinduko.

Eta zure begia — non dago zure begia?

Zure begia arbendolaren parean dago.

Zure begia ezerezean dago.

Erregearen ondoan dago.

Hor dago eta dago.

Giza kizkurra, ez zara urdinduko.

Arbendol hutsa, erret-urdina.

À la pointe acérée

Meak biluzik dautza, kristalak,
geodoak.
Idatzi gabeko gauzek, hizkuntzan
gogortuak,
zeru bat askatzen dute.

(Gorantz jaurtikia, agerian utzita,
zeharkatuta, hala
gautza geu ere.
Atea horren parean behin, arbela
klarionezko izar hilaz:
badauka
orain
begi — irakurle? — bat.)

Harako bideak.
Baso sasoia
gurdibide pindartsuan barrena.
Bildu-
tako
pago-ezkur

txiki zabala:
zabaltasun
beltzaxka, hatz-pentsamenduek galdekatua
zertaz —
zeri buruz?

Errepika-ezinari
buruz, horri
buruz, guztiari
buruz.

Harako bide pindartsua.

Mugi daitekeen zerbait, agurrik gabea
bihotz bilakatu oro bezala,
badator.

[harri distiratsuak]

Harri
distiratsuak haizean barrena doaz, zuri
distiratsuak, argi-
ekarleak.

Ez dute
jaitsi,
erori,
jo nahi. Zabaldu
egiten dira
basa-arrosa txikien moduan,
haiek bezala
zureganantz okertzen dira, ene isil,
ene benetako hori —:

Ikusten zaitut, biltzen dituzu nire
herritar soilaren eskuez,
nire esku berriez,
ipintzen dituzu inork deitoratu edo izendatu
behar ez duen Berriz-Distiratsuan.

Arratsa zirku eta gotorlekuarekin

Bresten, gar-oboan aurrean,
tigreak jauzi egiten zuen dendan,
han entzun zintudan, Mugatua, kantari,
han ikusi zintudan, Mandelstamm.

Zerua arradaren gainean,
kaioa garabiaren gainean.
Mugatuak kantatu zuen, Irmoak, —
zu, kanoiontzi, “Baobab” izenekoa.

Hirukoloreduna agurtu nuen
errusiar hitz batez —
galdua galdu gabea zen,
gotortutako leku bat bihotza.

Egun argiz

Erbi-azaleko zerua. Orain ere
luma argi batek idazten du.

Neu ere, gogora zaitez,
hauts-
koloreko hori, kurrilo gisan
etorri nintzen.

[banbua moztu dut]

Banbua moztu dut:

zuretzat, seme.

Bizi izan naiz.

Bihar erauzi be-
harreko txabolak
zutik dirau.

Ez nuen eraikitzen lagundu: ez
dakizu zein ontzi motatan
ipini nuen nire inguruko hondarra, duela
urteak, hala
aginduta eta eskainita.

Zurea
kanpotik dator — libre
geratzen da.

Hemen sustriaiak dituen ihia, bihar ere
hemen egonen da oraindik, zure
arimak jotzen zaituen edozein esparru
zabaletan.

[zer gertatu zen?]

Zer gertatu zen? Haitzak mendia utzi zuen.

Nor itzarri? Zu eta biok.

Hizkuntza, hizkuntza. Lurra-rekin. Planeta
hurkoa.

Txiroagoa. Irekita. Etxetiar.

Nora doa? Ezdesagerturantz.

Haitzarekin doa, gu biokin.

Bihotza eta bihotza. Sobera nekez aurkitua.

Are zailago bihurtu. Arinagoa izan.

[aireko orbainaren gerizpean]

Aireko orbainaren
gerizpean egon.

Ez egon inorentzat ez ezerentzat ere.
Ezagutu gabea,
zeure buruarentzat
bakarrik

Hor tokirik duen ororekin,
mintzairarik gabe
ere.

[harizpizko eguzkiak]

Harizpizko eguzkiak
mortu urdin beltzaren gainean.
Zuhaitz bat
pentsamendu gorenak
tonu arina hartzen du: gizateriaren
beste aldean badira oraindik
abesteko kantak.

[hondarrezko arte gehiagorik ez]

Hondarrezko arte gehiagorik ez, hondarrezko
libururik ez, maisurik ez.

Ezer ez dagoz irabazita. Zenbat
mutu?

Hamazazpi.

Zure galdera — zure erantzuna.
Zure kanta, zer daki?

Elurretansakon,

lursakon,

u-a-o.

[zuritasunak eraso egin zigunean]

Zuritasunak eraso egin zigunean, gauez;
limosna ontziari ura
baino gehiago zerionean;
larruturiko belaunak
eskaintza-txilinari
iradoki zionean:
hegan egin!—

Artean
osorik nengoen
orduan.

[bizitzaren etxe hutsa]

Bizitzaren etxe hutsa. Atarian
birikak
putz egiten die
barren hustutako
loreai. Esku bete
lo-ale
ahoaren egi toteletik
elurrezko
solasaldietara doa.

[nire eskuetako
azalaren azpian josia]

Nire eskuetako azalaren azpian josia:
eskuek
gozatutako zure izena.

Haize-masa oratzen
dudanean, gure janaria,
eroki zabaldutako
izerdi-zuloaren letra-dirdaiak
mikazten
du.

[idatzi izan zena
gero eta hutsalago]

Idatzi izan zena gero eta hutsalago.

Esan izan zena, itsaso-berdea,
kalan erretzen ari,

urtutako
izenetan mazopak
saltoka,

Inonez betiketuan, hemen,
ezkila ozenegiak
gogoan— non ordea?,

nor
ari da
arnasoska
itzal plaza honetan, nork
dagi dirdira
horren azpian
dirdira dagi, dirdira, dirdira?

[celloaren sarrera]

Celloaren sarrera
oinazearen atzetik:

elementuak, kontra-
zeruen arabera bilduak,
ezin argituzko gauzak bultzatzen dituzte
lurreratzekeo gunearen eta sarreraren parean,

arrats
eskalatua
birika sasiez gainezka dago.

arnasaren
bi ke lainoek
zultatzen dute
zerumugak zabalduriko liburuan.

zerbait benetako bilakatzen da.

hamabi aldiz argitzen da
geziek jotako beste aldea.

odol
beltzeko andreak edaten du
odol beltzeko gizonaren semena.

oro da dena
dena baino gutxiago,
oro da gehiago.

Coagula

Zure zauria
ere bai, Rosa.

Eta zure errumaniar
bufaloen argi-adarduna
hondarraren gaineko
izarren ordez,
ikatz goriko
fusilaren ipurdi indartsu
berritsuan.

[kezko, hitzezko
xingolen harrotzea]

Kezko, hitzezko xingolen harrotzea,
gorriak baino gorriagoak,
izotzaldi handiak bitartean,
izotz-tontor
irristakorretan,
kaio jendearen parean.

Hemen idazten duen
mailukadaka zeharkatzen
zaituen izpia,
gorria baino gorriagoa.

Erabili haren hitzak
zeure buru-hezurra zuritzeko, hemen,
hilobiratutako Urri horrek.

Urrea irartzeko erabiltzen zaitu, orain,
ahitzen ari delarik.

Xingolak laguntzeko erabiltzen zaitu.

Erabiltzen zaitu
kristal gogorreko panfletoa
odolezko bolardo irakurlean amarratzeko,
lurrak egotzitako eskora hori bitarte.

Give the word

Garuna ebaki— erdia? Hiru laurdenak?—,
Gaturik, pasahitzak ematen dituzu— honako
hauek:

“Tartariarren geziak”.

“Arte-ahia”.

“Arnasa”.

Denak datoz, gizon zein emazte, ez da inor
falta.

(Sipheteak eta Probylleak haien artean.)

Gizaki bat dator.

Mundu-sagarraren tamainakoa zure ondoko
malkoa,

erantzunek

erantzunek

erantzunek

orroka zeharkatuta.

Osoki izoztuta— nork izoztuta?

“Pasatu”, diozu,

“pasatu”,

“pasatu”.

Zure ahosabaitik libre

eta zure mihian argia eragiten du haizemaile
baten gisan,

argia.

[behin]

Behin,
entzun nuen,
mundua garbitzen ari zen,
inork ikusi gabe, gau osoz,
benetan.

Bat eta bukaerarik gabea,
suntsitua,
niksortua.

Bazen argia. Salbazioa.

[nire heriotza zinen]

Nire heriotza zinen:
heldu ahal nizun,
dena erortzen zitzaidalarik.

[eskuinean]

Eskuinean — Nor? Hildako emakumea.
Eta zu, ezkerrean, zu?

Igitai bidaiaria leku
hagitz zerutiarrean
zuri-urdinkaratzen da ihakinari
ilargi-enaretan,
izar-aldaketetan,

hor erortzen naiz
eta ontzi oso bat
isurtzen dizut
burutik behera.

Pentsatu honetaz

Pentsatu honetaz:

Masadako lokatzezko soldaduak

bere buruari erakusten dio etxerako bidea,
inongo

etenik gabe,

txarrantxako punta bakoitzaren kontra.

Pentsatu honetaz:

formarik gabeko begibakoak

iskanbilan barrena zaramatza libre, gero

eta indartsuagoa

zara.

Pentsatu honetaz:

zeure

eskuak

etsi dio

bizitzara itzultitako

bizitzeko moduko

lur

puska

honi.

Pentsatu honetaz:
lurperaezina-rengandik
niganaino etorri zen,
izen-erne, esku-erne
betiko.

[gauak ibili zuen]

Gauak ibili zuen, bere onera etorri zen,
umezurtzaren atorra bere bandera,

noraezean gehiago ibiltzerik ez,
zuzen ibili zuen —

bada, bada laranjak deabru-zuretik dilindan
baleude bezala,

hala ibiliak soinean ezer ez balu bezala
bere lehen

jaiotzekiko orban
sekretuaz

pikatutako azala
izan ezik.

[orain, belaunaulkiak erretzen]

Orain, belaunaulkiak erretzen ari direlarik
liburua jaten dut
bere intsignia
guztiaz.

Asian dagoen anaia batentzat

Beren burua aldatutako
armak
zerura igo,

hamar
bonbaketari aharrausika,

su azkar bat loratzen da,
bakea bezain ziurra,

eskukada bete arroz
hiltzen da zure lagun.

[nola hiltzen zaren nigan]

Nola hiltzen zaren nigan:

azken arnasa-korapilo

saretutaraino

hor zaude

bizitza

ezpal

batekin.

Highgate

Badoa aingeru bat gelan barrena —:
zuk, zabaldu gabeko liburutik gertu,
askesten nauzu
berriz ere.

Txilarrak hazkurria aurkitzen du birritan.
Birritan zurbiltzen da.

[oraindik ikus zaitzaket]

Oraindik ikus zaitzaket: oihartzun bat,
ukigarria hitz
beteez, alde egiteko
zorian.

Zure aurpegiak atzera egiten du apal,
bat-batean
lanpara baten gisako argitasuna
nigan pizten denean,
Sekula Ez esaten den toki mingarrienean.

[eternitateek]

Eternitateek
aurpegian jo eta
igaro,

su batek emeki itzali
kandela bilakaturiko gauza guztiak,

berde batek, ez hemengoa,
umezurtzek hilobiratutako
behin eta berriz hilobiratutako
harriaren kokotsa
estali.

[irlandar emakumeak]

Irlandar emakumeak, alde egiteaz tantotuta,
eskua irakurtzen dizu,
bizkor baino
bizkorrago.

Bere begiradaren urdina hazi egiten da,
galdutakoa eta irabazitakoa
batera:

zu,
begi-atzamardun
urruntasuna.

[sasi zura gehiagorik ez]

Sasi zura gehiagorik ez, hemen,
goiko gailurretan,
ezkai
solastari-
rik ez.

Mugetako elurra eta
taketak eta bide-seinaleen
itzalak auskultatu
eta hiltzat
jotzen dituen usaina.

Oranienstrasse I

Eztainua hazi zitzaidan eskuan,
ez nekien zer
egin:
ez nion forma emateko gogorik,
hark ez zuen ni irakurtzeko gogorik —

Baldin eta orain
Ossietzkyren azken
kaliza aurkituko balitz,
hortik ikasten
utziko nuke eztainua,

eta erromes-makilen
mordoak
ordua pairatuko luke isilik.

[mundu honen irakurtezintasuna]

Mundu honen
irakurtezintasuna. Dena bikoiztuta.

Ordulari gogorrek
zuzen ematen dute pitzatutako ordua,
marrantatuta.

Zu, zure sakonenari atxikia,
irten zugandik
betiko.

[aizkora loratu dela entzun dut]

Aizkora loratu dela entzun dut,
tokia izendaezina dela entzun dut,

entzun dut begiratzen dion ogiak
urkatua sendatzen duela,
haren emazteak egindako ogiak,

entzun dut bizitzari babes
bakarra esaten diotela.

[hosto bat, zuhaitz gabea]

Hosto bat, zuhaitz gabea

Bertolt Brechtentzat:

Zer nolako garaiak dira hauek,

non solasaldi bat

ia krimen bat den,

bere baitan hartzen baitu

adierazitako hainbeste?

[urtarrilaturik]

Urtarrilaturik

Balme

arantzatsuan. (Mozkor zaitez

eta esaiozu

Paris.)

Izotzak zigilatutako sorbalda;

mutu

horren gainean hondakinezko hontzak;

letrak behatz artean;

ziurtasuna.

[gau txikia: zugar hartzen
nauzunean]

Gau txikia: zugar hartzen nauzunean, har
nazazu

hor goian,

lurretik

hiru oinaze-zentimetro

gorago:

hondarrezko hil-beroki horiek guztiak,

ezinlagundu horiek guztiak,

oraindik mihiaz

barre dagien

hori guztia—

[turutaren lekua]

Turutaren lekua
lerro arteko hutsune
distiratsuaren sakonean,
zuzia bezain gora,
denboraren zuloan:

entzun arretaz
zure ahoaz.